

Azken lanaren atalak hauek dira:

1.- Portada, paginazioa, aurkibidea, sarrera

2.- Planteamendua (eredu didaktikoa, ikasleen ezaugarriak, gaiaren ezaugarriak, gaiaren bilakaera historikoa, transposizio didaktikoa, testu liburu edo beste informazio iturrien laguntza, curriculum berria, aurre ideiak, ...)

3.- Helburu orokorrak (landu dituzun zikloko jarduerari dagozkionak)

4.- Edukiak:

Edukien sekuentziazioa.

Edukien sekuentziazioa zikloz- ziklo

Kontzeptuzko edukiak eta mapa kontzeptuala. Kontzeptu mapei buruzko informazioa.

Mapa kontzeptualei buruzko informazioa.

Prozedurazko edukiak

Balio, jarrera, arauzko edukiak

5.- Estrategia metodologikoak eta didaktikoak (zeintzuk, bakoitza nola erabili duzun jardueretan, zergatik erabili duzu, zertarako,...)

6.- Jarduerak

Planteamendua, garapena (zehaztuz ahal duzun guztia, irakasleak proposatzen eta egiten duen guztia eta ikasleek proposatzen dituzten erantzunak eta guztia, erabilitako baliabideak eta nola erabiltzen diren), komentarioak edo iradokizunak

Zati curricularra:

Helburu espezifikoak

Kontzeptuzko edukiak

Prozedurazko edukiak

Balio, Jarrera, Arauzko Edukiak

Estrategia metodologikoak eta didaktikoak

7.- Balorazioa (lanarena, zerbait falta den, zailtasunak, alderdi positiboak eta negatiboak, ikasleen ikuspegitik, irakasleen ikuspegitik,)

8.- Bibliografia

Liburuak (paperean eta internetean)

Aldizkariak (paperean eta internetean)

Web orriak (informazioa, appletak, argazkiak, bideoak, simulazioak,....)

Lanaren abiapuntua edukien sekuentziazioa da. Edukiak (erreakzio kimikoen gaian dituzun edukiak) sekuentziazioan (ordenatzen eta antolatzen) sailatu behar dira. Gaian dituzun edukiak egituratu ondoren Bigarren Hezkuntzako hiru zikloen arabera sekuentzia burutu behar duzu. Sekuentzia hori garatu eta argumentatu behar duzu. Hau egin ondoren ziklo bat aukeratu eta ziklo horretan dauden edukiak jardueretan transformatu behar dituzu, jardueren horien bitartez gelan edukiak irakatsi eta ikasleek ikas ditzaten. Tenporalizazioaz ez arduratu ez bait du garrantzi gehiegirik ematen. Jarduerak egituratzerakoan eredu didaktiko zehatza aplikatuz edukiak garatu behar dira. Eta behar diren jarduerak proposatu eta garatu.

Lan Zuzenduaren ebaluazioan kontutan hartuko dut:

AURKEZPENA (Aurkezpenaren Kalitatea, Edukien Sekuentziazioa Bigarren Hezkuntzan eta bere justifikazioa, Jardueren egokitasuna eta aurkezpenaren kalitatea, Galderen eta zalantzen erantzunak)

LAN IDATZIAN

Planteamendu orokorra

Helburuak

Kontzeptuzko edukiak eta mapa kontzeptuala

Prozedurazko edukiak

Balio, jarrera, arauzko edukiak

Edukien sekuentziazioa eta sekuentziazioa zikloz- ziklo

Estrategia metodologikoak eta didaktikoak

Jardueren kokapena faseetan

Jardueren egokitasuna eta koherentzia

Gaiarekin jardueren koherentzia

Balorazioa eta auto ebaluazioa (hausnarketa)

Testu liburu edo proiektu curricularrarekin konparazioa.

Alderdi formala (indizea, paginazioa, bibliografia,...)

ETA AURKEZPENEAN

Aurkezpenaren Kalitatea

Edukien Sekuentziazioa Bigarren Hezkuntzan eta bere justifikazioa

Jardueren egokitasuna eta kalitatea

Galderen eta zalantzen erantzunak